



## **ESKU PILOTA ENPRESEN LIGAREN** **ESKUZ BANAKAKO VIII. TXAPELKETAREN ARAUDIA 2010**

### □ **Txapelketa sistema:**

Txapelketak ondorengo faseak izango ditu:

- a) Final-laurdenetako ligaxkara sailkatzeko fasea.
- b) Final-laurdenetako ligaxka.
- c) Finalerdiak.
- d) Finala.

#### ➤ Final-laurdenetako ligaxkara sailkatzeko fasea:

Final-laurdenetako ligaxkara sailkatzeko eliminatoria apirilaren 10ean ospatuko den partida bakarrean jokatu da. Partida hau irabazten duen pilotariak B taldera pasatuko da.

Partida hau irabazi duen pilotariak, edozein arrazoiengatik, ezin badu final-laurdenetako ondorengo ligaxkan parte hartu, aurreko eliminatoria galdu duen pilotariak parte hartuko du bere ordeaz.

#### ➤ Final-laurdenetako ligaxka:

Ligaxka honetan 8 pilotarik hartuko dute parte. Pilotari hauek A eta B taldeetan banatuko dira, bakoitzak 4 pilotariz osotua.

Talde bakoitzako pilotariak bere taldeko beste pilotari guztien kontra jokatu beharko du. Honela, ligaxka honetan 3 jardunaldi ospatuko dira.

Final-laurdenetako ligaxka honetako jardunaldiak apirilaren 18aren eta maiatzaren 23aren asteburuen artean ospatuko dira.

Ligaxka honetan irabazitako partida bakoitzatik pilotariek puntu bana (bat) lortuko dute. Hirugarren partidaren ondoren pilotari bakoitzak lortutako puntuen arabera ligaxka honetako sailkapena burutuko da.

Berdinketa izan ezker, ondoko erizpideak kontuan hartuko dira.

1º.- Berdinketa bi pilotarien artean eman ezker, final-laurdenetako ligaxkan bien artean jokaturako partidaren emaitza kontuan hartuko da.

2º.- Berdinketa bi pilotari baino gehiagoren artean suertatzen bada, hauen artean jokaturako partidetan lortutako tantuen koefizientea kontuan hartuko da (aldeko tantuak kontrakoak kenduta). Berdinketa



mantendu ezkerro final- laurdenetako ligaxkan jokaturako partida guztien koefizientea kontuan izango da.

Final laurdenetako ligaxka hasi aurretik pilotariren batek ezin badu ligaxka honetan parte hartu, bere enpresak erabaki ahal izango du zein pilotarik jokaturako duen bere ordez.

Final laurdenetako ligaxkaren lehen jardunaldiaren ondoren pilotariren batek ezin badu txapelketan jarraitu bigarren jardunaldia jokatu aurretik, EPELako Kirol Batzordeak ondokoen artean erabaki dezake: (i) Final-laurdenetako ligaxkaren sailkapena burutzeko orduan, txapelketan jarraitzen duten pilotarien emaitzak baino ez kontuan hartu, erretiratutako pilotariaren kontra lortutako emaitza baztertuz; (ii) Geratzen diren jardunaldi biak jokaturako dituen pilotari berri bat sartu. Kasu honetan pilotari honi ez zaio kontuan izango erretiratutako pilotariak jokaturako partidaren lortutako emaitza; halere, emaitza hori kontuan edukiko zaio erretiratuaren kontra jokatu eta ligaxkan jarraitzen duen pilotariari.

Pilotari batek ezin badu ligaxka honetako jardunaldi bat jokatu, partida hori galdutzat emango zaio, 22-0 emaitza zenbatuz bere kontra jokatu behar duen pilotariaren alde.

➤ Finalerdiak:

Talde bakoitzean (A eta B) lehen eta bigarren postuetan sailkatzen diren pilotariak jokaturako dituzte finalerdiak. Finalerdiak honela jokaturako dira: A taldeko lehen sailkatua, B taldeko bigarren sailkatuaren kontra eta B taldeko lehen sailkatua, A taldeko bigarren sailkatuaren kontra.

Finalerdietako partidak ekainak 6aren asteburuan ospatuko dira.

Finalerdietarako sailkatutako pilotari batek ezin badu finalerdietako partida hau jokatu, bere taldean (A edo B) hirugarren postua lortu duen pilotariak jokaturako du bere ordez.

➤ Finala:

Finalerdietako partidak irabazten duten pilotariak sailkatuko dira finalerako.

Semifinaletako partidak galtzen duten pilotariak hirugarren eta laugarren postuetarako partida jokaturako dute ekainaren 13an. Hauetako pilotariren batek ezin badu partida honetan parte hartu, bere aurkariak zuzenean irabazle suertatuko da.



Finala, haseran behintzat, 2010eko ekainaren 20an ospatuko den partida bakarrean jokatu da.

Gertaera ezberdinengatik finalan parte hartu behar duen pilotari batek ezin badu partida haseran finkatutako datan jokatu, hau atzeratu ahal izango da EPEL.eko Epaile Bakarrak horrela baimentzen badu. Haseran jarritako datan finala jokatu ezin duen pilotariak EPELari abisatu beharko dio, gertaera hoiek ematen diren momentuan bertan. Eskaera hori bere osasunarekin erlazionatzen diren arazoekin lotzen bada, pilotari horrek bere enpresako medikuak egindako txostena aurkeztu beharko du. Txosten horretan medikuak jarri beharko du bere iritziz noiz pilotari hori prest egongo den finala jokatzeko.

EPELeko Txapelketako Epaile Bakarra, gertaerak aztertu ondoren, erabakiko du atzerapena onartzen duen ala ez; eta atzerapena baimendu ezkeron finala jokatzeko data berri bat finkatuko du. Data berri hau jarri behar izan ezkeron, 2010eko ekainaren 26a. baino lehenago jarri beharko du derrigorrez.

Halere, finalerako sailkatutako pilotariaren batek ezin badu EPELeko Txapelketako Epaile Bakarrak jarritako datan finala jokatu, hirugarren eta laugarren posturako partida irabazi duen pilotariak jokatu du finala bere ordez.

□ **Luzapenak:**

Finalerako aurreikusitakoaz kanpo, arau orokor moduan, txapelketan ez da inongo luzapenik onartuko.

Hala ere, pilotariak osasun arazoak ditueneko egoeretan eta sendatzeko ustezko arrazoi objektiboak izan daitezkeenean, araudi honetan ezarritako erreferentzia data baino haratago finkatu daiteke partidua; beti ere, EPELeko Txapelketako Epaile Bakarraren iritziz eta Kirol Batzordeari entzun eta gero, hurrengo baldintzak metatzen direnean:

- a) Partiduko data berria, hurrengo fasea edo jardunaldiaren aurretik izan dadila.
- b) Partiduko data berriak, hurrengo fasea edo jardunaldia moldatzeko ondoriorik ez dezala izan.
- c) Partiduko data berria, pilotariak hurrengo fasea edo jardunaldia jokatzeko nahikoa errekupeazio denbora izan dezala.

□ **Sake:**

Pilotari bakoitzak sake bakarra izango du, aurkariaren alde tantu moduan zenbatuak izanik bai "labur" edo faltako marrara ailegatzen ez diren sakeak, baita "luze" edo pasako marra gainditzen dutenak.



□ **Atsedenaldiak:**

a) Epaile kontrolatzailea:

Kontrola alde batetik; pilotari, epaile eta ikusleekin komunikatze lana bestetik; eta partidetan zehar ematen diren atsedenaldiekin lotuta dagoen zigortze gaitasuna azkenik, epaile kontrolatzaileak beteko du.

b) Atsedenaldien eskaera:

Atsedenaldia pilotariak edo teknikariak/botileroak eskatu beharko dute, eta epaileari argi adierazi beharko diote.

Pilotari edo teknikari/botilero biek atsedenaldia eskatu ezker, atsedenaldi hau azken tantua galdu duen pilotariari zenbatuko zaio.

Ezin izango da atsedenaldia eskatu azken tantua zuzenean sakez lortua izan denean.

Atsedenaldia, azken tantua bukatu den unetik neurtzen hasiko da, eskatutako momentua kontuan izan barik.

c) Atsedenaldien denbora eta kopurua:

Pilotari bakoitzak gehienez 2 minututako 5 atsedenaldi eskatu ahal izango ditu partidari zehar.

Partida 21 tantutara berdindurik egon ezker, eta pilotari biek beraien atsedenaldi guztiak agortu izan badituzte, epaile nagusiak neurri bereko atsedenaldi berri bat eman dezake.

Atsedenaldiaren bitartean pilotariak eta teknikariak/botileroak atsedenaldietarako bereiziki prestatutako setan egon beharko dira..

d) Atsedenaldien seinalizazioa:

Epaile kontrolatzaileak pilotari eta ikuslei atsedenaldiak adieraziko dizkie ondorengo arauak jarraituz:

1. Atsedenaldiaren zenbakia eta eskatzen duen bikotea:

Atsedenaldia eskatu duen pilotariari dagokion kartoi mehe gorri edo urdina erakutsiko du.

Kartoi mehe hau, gorria edo urdina, zenbaki bat eramango du idatzita; zenbaki honek atsedenaldia zein den adieraziko du.



## 2. Atsedenaldiaren amaiera:

Atsedenaldia bukatzeko 20 segundu falta direnean, kolore orlegiko kartoi mehea erakutsiko du eta pilotariak kantzara abiatu beharko dira momentu horretan bertan.

### e) Kantxa uztea:

Pilotari batek ezin du kantxa utzi epaile kontrolatzailearen baimena izan barik. Honek baimena eman ezker kantxatik kanpo lagunduko dio.

Pilotariak aldageletara joan ahal izateko ondoko baldintzak eman beharko dira:

- Laguntza medikuen beharra izatea.
- Komunera joateko premiazko beharra izatea.
- Kirol janzkeraren aldaketaren beharra, eskuen babesaren honen baitan ez dala kontsideratzen.

Aldageletara sartzea, arrazoia edozein izanda ere, atsedenaldi moduan kontuan hartuko da, eta benetan premiazkoa den uneraino luzatuko da bakarrik.

### f) Atsedenaldien ez betetzea:

Pilotariren batek, kartoi-mehe orlegia aldatua izan eta gero, kantzara abiatzen ez bada, kartoi mehe zuria erakutsiko zaio; hau ohar moduan kontsideratuko da.

Epaile kontrolatzaileak kartoi mehe beltza erakutsiko dio pilotari bati ondorengo kasuetan:

- Kartoi mehe zuria erakutsi ondoren jaramonik egiten ez badu.
- Aldageletan izandako sartze horrek justifikaziorik ez daukanean.
- Atsedenaldia eskatu barik, epaile kontrolatzaileak, pilotari batek jokua etentzeko jarrera agertzen duela, ulertzen duenean.

Kartoi mehe beltzen ezarketa partidaren aktan adieraziko da.

### □ **Doping-aren kontrako kontrolak:**

Txapelketan zehar doping-aren kontrako kontrolak burutu ahal izango dira. Kontrol hauek EPELeK ezarritako Doping-aren Kontrako Araudian oinarrituko dira.



□ **Txapelketatik baztertzea:**

EPELek konturatuko balitz pilotari bat ez dagoela txapelketa honetan jarraitzeko baldintza fisiko egokietan, EPELeko Txapelketako Epaile bakarrak, Kirol Batzordeari eta pilotariari berari entzun eta gero, pilotaria txapelketatik kanpo utzi ahal izango du.

□ **Bestelako arazoen inguruko erabakiak eta araudiaren interpretazioa:**

EPELeko Txapelketako Epaile Bakarrak erabakiko du araudi honen interpretazioan sor daitezkeen arazoen inguruan; baita ere araudi honek aurreikusten ez duen edozein gertaeraren inguruan sortutakoak. Bere erabakia apelaezina izango da.